

Gida didaktikoa

HAN ETA HEMENGO
IPUINAK I

MAKILAKIXKI

MAKILAKIXKI

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

HELBURUAK:

EDUKIAK:

Jarrerak:

Begirunea.
Zuzentasuna.
Ordena.

PROZEDURAK:

A. AHOZKO TESTUAK ULERTZEA:

a. Narrazioa: ipuin fantastikoa.

B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEA:

a. Narrazioa: ipuin fantastikoa.

1. Hari kronologikoari jarraitzen saiatzea.
2. Izenburua eta pertsonaien izenak bereiztea.

b. Elkarrizketa:

1. Zuzendua
2. Imitazioa

KONTZEPTUAK:

Denborazko nozioak: lehen / ondoren.

Idazketa: izenburua. Esaldiak / hitzak / letrak.

Koherentzia: ipuinari ez dagokiona bereiztea.

Lexikoa:

JARDUERAK:

TALDE HANDIETAN

1. Irakasleak ipuina kontatuko du, beste ipuinetako zatiak erantsiz. Hurrek esan egin behar diote gaiez aldatu duenean.

2. Asmakizunak:

- a. Errota: "Beti jaten ari eta, hala ere, beti gose"
- b. Makila: "Basoan jaio, basoan hazi, herrira etorri eta bera nagusi."
- c. Zakua: "Hutsik zutik ezin egon; betea nolanahe egoki."
- d. Urrea: "Asko balio du, dir-dira egiten du"

3. Ikasi aho-korapiloa:

"Tan-tan Pello gaiztoa, tan-tan lapurretan, takean-takean lapurretan"

TALDE TXIKIETAN

Osatu ipuina, etxera eramateko:

1. Gogoratu denon artean ipuineko ekintza garrantzitsuenak.
2. Jarri ordenan ipuineko marrazkiak, talde txikietan.
3. Izenburua azalean ipini beharko dute. Horretarako, mahaian dauden txartelen artetik egokia dena aukeratu beharko dute:
4. Makilakaxka ... Makilakoxko ... Makilakuxku ... Makilakixki ... Makilakexke: Irakasleak irakurriko ditu, eta hurrek bereizi egin beharko dute Makilakixki esaten duenean.
5. Ipuineko biñetetan Makilakixki hitza agertzen denean, inguratu egin beharko dute.
6. Ikasi pertsonaien izenak bereizten.
7. Bilatu berdintasunak pertsonaien izenen eta taldekoenen artean:
Toribio - Aritz - Iker - Beñat - ...
8. Elkarrizketa: ipuineko elkarrizketaren imitazioa.

A)

Toribio.- Aritz!

Aritz.- Zer?

Toribio.- Ez zara zeure etxera joango?

Aritz.- Bai, gustura joango nintzateke.

Toribio.- Ba, lan asko eta ondo egin duzunez gero, asto hau oparituko dizut.

Aritz.- Asto bat besterik ez? Esker txarreko galanta, bai horixe!

Toribio.- Egon. Asto honi "urreea egin" esan, eta urreea egingo du.

(Astoak urreea egin du "urreea egin" entzutean.)

(Aritz bidetik doa astoarekin, Toribio begira ari zaiola.)

Toribio.- Agur, eta ondo ibili!

(Aritz bidetik doa astoarekin, urreea zorroan daramala.)

(Aritz, ostatu baten atarian, jabearekin hitz egiten ari da.)

Aritz.- Gaua hemen pasatu nahi nuke. Gordeko zenidake astoa ukuiluan?

Pello.- Lasai, ni arduratuko naiz.

Aritz.- Gauza bat, ez esan astoari "Urreea egin", Ados?

(Astoak urreea egin du, eta lurrera erori dira urrezko gorotz bi.)

Pello.- Lasai, ni arduratuko naiz.

Pello.- (astoari) "urreea egin"

Pello.- Ene, ezin liteke, asto hau sorginduta dago!

B) (Beñat bere etxeko atean, aitarekin eta anaiekin.)

Beñat.- Begira ezazue zer egiten duen mahai honek!

Beñat.- "Janaria prestatu"!

(Mahaian ez da ezer agertu.)

Beñat.- E? Atzo janaria prestatu zuen, zer gertatu da?

Txomin.- Seme, badirudi mahaia aldatu egin dizutela edo adarra jo dizutela berriro!

Beñat.- Ostalari madarikatua! Hau amorrua! Harrapatzen badut!

Gidoi literarioa:

MAKILAKIXKI

LAMIA:(OFF) Behin batean, leku zoragarri batean, mendi garaien erdian eta erreka eta basoz inguratuta, baserritxo bat zegoen. / Bertan gizon bat bizi zen bere hiru semeekin. Beñat, Aritz eta Iker ziren haien izenak. / Oso pobreak ziren. Baserrian lan eta lan egin arren, ia ezin zuten bizimodua atera. Azkenaldian aita estu eta larri zebilen, ez zuelako irtenbiderik aurkitzen. Eta semeei kontatzea erabaki zuen.

TXOMIN: Lurra kendu egingo digute. Diru asko zor diot jauntxoari, eta mehatxatu egin nau, ordaindu ezean, etxea kenduko digula. (AD LIB)

BEÑAT: Esan diozu uzta jaso arte itxaroteko? Artoa saldu ondoren ordainduko diogu.

TXOMIN: Ez horixe! Artoagatik gero eta diru gutxiago ordaintzen digute. Gainera, gure uzta ez da oso oparoa izango.

ARITZ: Ez kezkatu, aita, lan bila joango naiz, eta, hartara, dirua izango dugu.

TXOMIN: Hala beharko du. Baserriak ez du bizitzeko adina ematen, ez dago beste erremediorik.

LAMIA: (OFF) Hurrengo egunean, goizean goiz, semea joateko prest zegoen.

TXOMIN: Agur, seme.

ARITZ: Agur, aita.

TXOMIN: Zorte ona izan, eta zaindu zeure burua.

ARITZ: Lasai, aita, berehala lortuko dut lanen bat, eta zorrak kitatuko ditugu.

TXOMIN: Hala izango ahal da! / Agur.

ARITZ: Agur.

LAMIA: (OFF) Aitak zaku bat eman zion janari apur batekin. / Hura lepoan hartu eta Aritz etxetik aldendu zen. / Tipi-tapa, tipi-tapa, atzean utzi zituen etxe inguruko bazterrak. / Bidetik errotari batekin topo egin zuen eta lana eskatu zion.

ERROTARIA: Zer nahi duzu?

ARITZ: Lan bila nator.

ERROTARIA: Sentitzen dut, ez dut inoren beharrik. Agur.

ARITZ: (AD LIB) Agur.

4:38

LAMIA: (OFF) Aritzek bere bideari jarraitu zion burumakur. / Gaua heldu baino lehentxeago, aintzira baten ondotik igaro zen eta

leku ezin aproposagoa iruditu zitzaion atsedean hartu eta afaltzeko. Izan ere, ordurako nekatuta zegoen. Belar artean eseri zen eta ogia jan zuen. Gero, logaleak zegoenez, hantxe egin zuen lo.

(ALDI BEREKOA)

ARITZ: (AD LIB) (ZURRUNGAK) / (AHARRAUSIAK)

LAMIA: (OFF) Egunsentiaren argiarekin esnatu zen. Nagiak atera zituen eta zertxobait gosaldtu zuen. Dena jaso ondoren, alde egiteko prest zegoenean, handik zebilen gizon bat hurbildu zitzaion. Gizonak zama lurrean utzi eta Aritz agurtu zuen.

TORIBIO: Egun on!

ARITZ: Baita zuri ere!

TORIBIO: Zu ez zara hemengoa, e?

ARITZ: Ez.

5:44

TORIBIO: Ezagun duzu. Tira, nolatan zeure etxetik hain urrun?

ARITZ: Lan bila nabil.

TORIBIO: Egiatan? (AD LIB) Hau zortea nirea! Langile baten premian nago, eta zu aurkitzea ere! Hau da kasualitatea!

ARITZ: Zer egin beharko nuke?

TORIBIO: Baserrian lagundu; alegia, baratzea eta ukuilua zaindu. Badakizu nola egiten den?

ARITZ: Bai, gure aitaren baserrian egiten nuen.

TORIBIO: Orduan, ados. Har ezazu zakua, eta goazen.

LAMIA: (OFF) Bakoitzak bere zakua bizkarrean hartuta, elkarrekin abiatu ziren. / Asko ibili ondoren, Toribioren baserrira heldu ziren. Oso txukuna zen. Toribiok dena garbi-garbi zeukan eta gauza bakoitza bere lekuan. Gau hartan, Aritzek gustura lo egin zuen ohe txukun batean.

OILARRA: Kukurruku!

ARITZ: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Oilarragatik izan ez balitz, ez zen esnatuko! Aritz hain langilea zenez, berehala altxatu zen. Gosaldu eta lanean hasi zen. Behiak eraisten, aitzurraz baratzea lantzen, garia biltzen, egurra biltzen... Horrela eman zituen egun asko.

OILARRA: Kukurruku!

ARITZ: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Harik eta goiz batean, Toribiok honela esan zion arte:

TORIBIO: Aritz!

ARITZ: Zer?

TORIBIO: Ez zara zeure etxera joango?

ARITZ: Bai, gustura joango nintzateke.

TORIBIO: Ba, lan asko eta ondo egin duzunez gero, asto hau oparituko dizut.

ASTOA: (AD LIB)

ARITZ: Asto bat besterik ez? Esker txarreko galanta, bai horixe!

TORIBIO: Egon. Asto honi "urreea egin" esan, eta urreea egingo du.

ARITZ: (AD LIB)

(ALDI BEREKOA)

LAMIA: (OFF) Toribio burutik jota zegoela pentsatu zuen Aritzek. Nola sinetsi daiteke astoaren ipurditik urreea irten daitekeela?

ASTOA: (AD LIB)

8:00

LAMIA: (OFF) Aritzek gorotza espero zuen, jakina. Baina a ze sorpresa, haren ordeztu urreea ikusi zuenean! Pozak zorutzen onartu zuen oparia. Gero, bere gauza guztiak batu zituen eta etxera itzultzeko prestatu zen. / Baserriaren kanpoko aldean, agur esan zioten lagunak elkarri.

ARITZ: Agur! Eta eskerrik asko!...

TORIBIO: Ez horregatik! Agur! Ondo joan!... / Agur, eta ondo ibili!

LAMIA: (OFF) Astoarekin pozik zihoan Aritz, aitaren arazo guztiak konponduko zituen-da. Etorri zen bide beretik itzuli zen. Eta tipi-tapa, tipi-tapa, aintzirara heldu ziren ilundu baino lehenxeago. Baina, dagoeneko pobrea ez zenez, bertan lo egin beharrean, gaua ostatu batean ematea erabaki zuen.

ARITZ: Gaua hemen pasa nahi nuke. Gordeko zenidake astoa ukuiluan?

ASTOA: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Ostalariak goitik behera begiratu zien: nor ote zen mutiko hura? Eta zergatik zaintzen zuen hain ondo astoa?

PELLO: Lasai, ni arduratuko naiz.

ARITZ: Gauza bat, ez esan astoari "urreea egin", ados?

PELLO: Ados. (AD LIB-AK)

LAMIA: (OFF) Ostalariak ez zuen ezer ulertzen eta astoak kaka egingo zuelakoan sudurra estali zuen. / Haren harridura urreea ikusi zuenean! / Baina, zer zen hura? Ez zuen sekula halakorik ikusi! Ahozabalik, guztiz harriduta zegoen. Harriduta eta pozik, izan ere astoa egundoko mauka baitzen!

PELLO: Lasai, ni arduratuko naiz.

ARITZ: Ederki. (AD LIB) Gabon.

PELLO: (AD LIB)
ASTOA: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Aritzek astoari musu bat eman eta ostatura sartu zen. Pello astoarekin bakarrik geratu zen. "Hauxe aukera paregabea..." pentsatu zuen, "...asto honek aberastu egingo nau!". / "Urrea egin!" esan, eta astoa urrea egiten hasi zen.
PELLO: Tira, astoa, urrea egin!
ASTOA: (ARRANTZA)
PELLO: Ene, ezin liteke, asto hau sorginduta dago!
LAMIA: (OFF) Aritzek gozo-gozo lo egin zuen gau hartan. Hala ere, goizean goiz esnatu zen, etxekoei astoa erakusteko gogo handia baitzuen. / Bapo gosalduek ondoren, astoa hartu zuen...
ASTOA: (AD LIB)
ARITZ: (AD LIB)
PELLO: (AD LIB) (BARREAK)
LAMIA: (OFF) ...eta etxerantz abiatu zen lasai asko. Ez zen aldaketaz ohartu! / Etxera heldu eta astoa erakutsi zien aitari eta anaiei.
ARITZ: Begira ezazue zer egiten duen asto honek! "Urrea egin"! (AD LIB)
ASTOA: (AD LIB)
TXOMIN: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Baina astoak gorotz handi bat besterik ez zuen egin. A ze hatsa! **11:15**
ARITZ: E? Atzo urrea egin zuen! Zer gertatu da?
TXOMIN: Seme, badirudi astoa aldatu egin dizutela edo adarra jo dizutela!
ARITZ: Ostalari madarikatua! Hau amorrua! Harrapatzen badut!
LAMIA: (OFF) Ostalaria poz-pez zegoen lapurtutako astoarekin aberatsa izango zelako. Aritzzen aita, berriz, oso kezkatuta zegoen, nola konponduko zuen arazoa?
TXOMIN: Ai ene... (AD LIB)
BEÑAT: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Bigarren semeak, Beñatek, ezin zuen aita horren kezkatuta ikusi. Eta lasaitzeko, etxetik kanpo lana bilatzea erabaki zuen berak ere.
BEÑAT: Aita, ez kezkatu diruagatik, ni joango naiz lan bila.
LAMIA: (OFF) Hurrengo goizean etxetik alde egin zuen Beñatek. Lana bilatu behar zuela, besterik ez zuen buruan. / Tipi-tapa, tipi-tapa, bide luzea egin zuen... halako batean, errotiarekin topo egin zuen arte.
ERROTARIA: Zer nahi duzu?
BEÑAT: Lan bila nator.
ERROTARIA: Sentitzen dut, ez dut inoren beharrik. Agur.
BEÑAT: Agur.
LAMIA: (OFF) Burumakur, Beñatek bere bideari jarraitu zion. Aintziraren ondotik igaro zen, eta leku ezin hobea iruditu zitzaion gelditu eta afaltzeko. Ordurako, nahiko nekatuta zegoen eta.
BEÑAT: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Eseri eta ogia jan zuen. Gero, logura zenez, bertan egin zuen lo.
BEÑAT: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Egunsentiaren argiak esnatu zuen. Nagiak atera ondoren, gosalduek egin zuen. Eta joateko prest zegoenean, handik zebilen gizon bat hurbildu zitzaion. Gizonak zama lurrean utzi eta Beñat agurtu zuen.
TORIBIO: Egun on!
BEÑAT: Bai eta zuri ere!
TORIBIO: Zu ez zara hemengoa, e?
BEÑAT: Ez. **13:36**
TORIBIO: Ezagun duzu. Tira, nolatan zeure etxetik hain urrun?
BEÑAT: Lan bila nabil.

TORIBIO: Egiatan? Hau zortea nirea! Langile baten premian nago, eta zu aurkitzea ere! Hau da kasualitatea!

BEÑAT: Zer egin beharko nuke?

TORIBIO: Baserrian lagundu; alegia, baratzea eta ukuilua zaindu. Badakizu nola egiten den?

BEÑAT: Bai, gure aitaren baserrian egiten nuen.

TORIBIO: Orduan, ados. Har ezazu zakua, eta goazen.

LAMIA: (OFF) A zer aukera! Beñatek ez zuen birritan pentsatu behar izan. Zakua bizkarrean hartu eta Toribiorekin joan zen. / Basoan zehar asko eta asko ibili ondoren, azkenean Toribioren baserrira heldu ziren. Halakorik

ikusi gabe zegoen Beñat. Oso txukuna zen. Toribiok dena garbi-garbi zeukan, eta gauza bakoitza bere lekuan.

LAMIA: (OFF) Beñatek gustura lo egin zuen ohe txukun batean.

BEÑAT: (AD LIB)

OILARRA: Kukurruku!

LAMIA: (OFF) Oilarragatik izan ez balitz ez zen esnatuko.

(ALDI BEREKOA)

BEÑAT: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Beñat oso langilea zenez berehala altxatu zen, gosalduta eta lanean hasi zuen. Behiak eraisten, aitzurraz baratzea lantzen, egurra biltzen, garia biltzen,... Horrela eman zituen egun asko.

OILARRA: (OFF) Kukurruku!

BEÑAT: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Eta goiz batean Toribiok honela esan zion:

TORIBIO: Beñat!

BEÑAT: Zer?

TORIBIO: Ez zara zeure etxera joango?

BEÑAT: Bai, gustura joango nintzateke.

TORIBIO: Ba, lan asko eta ondo egin duzunez gero, mahai hau oparitutako dizut.

LAMIA: (OFF) Beñatek ez zuen esker txarrekoa izan nahi, baina mahai gutxi iruditu zitzaion.

BEÑAT: Mahai bat besterik ez? Esker txarreko galanta, bai horixe!

TORIBIO: Egon. Mahai honi "prestatu janaria" esan, eta janaria prestatuko dizu. (OFF) Ea, prestatu janaria!

LAMIA: (OFF) Esan eta gertatu, mahaiaren gainean janari gozo-gozoak agertu ziren. Hura Beñaten poza! Aurrerantzean, mahaitxoari esker ez ziren inoiz gehiago gose izango.

BEÑAT: (AD LIB) / Eskerrik asko...

LAMIA: (OFF) Baserriaren kanpoko alderaino lagundu zion Toribiok Beñati. Eta hantxe agurtu zuten elkar.

BEÑAT: Agur...

TORIBIO: Agur, eta ondo ibili!

17:00

LAMIA: (OFF) Beñat oso pozik zihoan etxerantz bere mahaitxoarekin. Baina, oso bide luzea zen, eta laster ilunduko zuenez, gaua ostatuan ematea erabaki zuen, orduan bazeukan-eta nola ordaindu.

BEÑAT: Gaua hemen pasatu nahi nuke. Gordeko didazu mahai ostatuan?

PELLO: Lasai, ni arduratuko naiz.

BEÑAT: Gauza bat, ez esan mahaiari "prestatu janaria", ados?

LAMIA: (OFF) Eta esan eta gertatu, jaki ederrak agertu ziren.

PELLO: Lasai, ni arduratuko naiz. (AD LIB)

ARITZ: Gabon.

PELLO: Gabon... / (AD LIB) Prestatu janaria!..

LAMIA: (OFF) Beñat ohera joan zen. / Ostalariak, berriz, gau osoa eman zuen mahaiari

"Prestatu janaria!" esan eta esan. Eta mahaiak era guztietako janariak eman zizkion behin eta berriro. Jakina, hura ikusita, ostalariak beretzat nahi zuen mahaia.

PELLO: Ene, ezin liteke, mahai hau sorginduta dago! (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Goizean beste mahai bat eman zion Beñati, baina asmatu duzue, ez zen magikoa, mahai arrunta baizik.

BEÑAT: (AD LIB)

PELLO: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Beñat ez zen aldaketaz ohartu eta etxerantz abiatu zen, hangoei mahaia erakusteko irrikitan. Aitari erakutsi nahi izan zionean,...

BEÑAT: Begira zer egiten duen mahai honek! "Prestatu janaria"!

BEÑAT: (AD LIB)

TXOMIN: (AD LIB)

BEÑAT: E? Atzo janaria prestatu zuen, zer gertatu da?

TXOMIN: Seme, badirudi mahaia aldatu egin dizutela edo adarra jo dizutela zuri ere!

BEÑAT: Ostalari madarikatua! Hau amorrua! Harrapatzen badut!

LAMIA: (OFF) Ostalaria oso pozik zegoen. Beñaten aita, berriz, gero eta kezkatuago. Nola lortuko zuen behar zuen dirua? Aita horren estu ikustean, Ikerrek, hirugarren semeak honela esan zion:...

(ALDI BEREKOA)

TXOMIN: (AD LIB)

IKER: Aita, ez kezkatu diruagatik, ni joango naiz lan bila.

LAMIA: (OFF) Hurrengo egunean, goizean goiz, Iker joateko prest zegoen.

TXOMIN: (AD LIB) Agur, seme. Kontuz ibili eta ondo izan!

IKER: (AD LIB) Agur, aita. Bai, lasai...

LAMIA: (OFF) Aitak zaku bat eman zion janari apur batekin.

TXOMIN: Agur... (AD LIB)

IKER: Agur...

20:05

LAMIA: (OFF) Eta bideari ekin zion. / Baso eta mendietan zehar aurrera jo zuen Ikerrek... harik eta bidean errotari batekin topo egin zuen arte. / Lana eskatu zion errotariari.

IKER: (AD LIB)

ERROTARIA: (AD LIB) Zer nahi duzu?

IKER: Lan bila nator.

ERROTARIA: Sentitzen dut, ez dut inoren beharrik. Agur.

IKER: Agur.

LAMIA: (OFF) Eta Ikerrek bideari jarraitu zion. Aintzira baten ondotik igaro zen eta leku ezin aproposagoa iruditu zitzaion gelditu eta afaltzeko. Izan ere, ordurako nekatuta zegoen.

LAMIA: (OFF) Leku polit hartan eseri zen, eta ogia jan zuen afaltzeko. Gero, logaleak zegoenez, hantxe egin zuen lo.

IKER: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Egunsentiarekin esnatu egin zen. Nagiak atera zituen eta gosalduta egin zuen. Berriz ere abiatzeko prest zegoenean, handik zebilen gizon bat hurbildu zitzaion. Gizonak zama lurrean utzi eta Iker agurtu zuen.

TORIBIO: (AD LIB) Egun on!

IKER: Bai eta zuri ere!

TORIBIO: Zu ez zara hemengoa, e?

IKER: Ez.

TORIBIO: Ezagun duzu. Tira, nolatan zeure etxetik hain urrun?

IKER: Lan bila nabil.

TORIBIO: Egiatan? Hau zortea nirea! Langile baten premian nago, eta zu aurkitzea ere! Hau da kasualitatea!

IKER: Zer egin beharko nuke?

TORIBIO: Baserrian lagundu; alegia, baratzea eta ukuilua zaindu. Badakizu nola egiten den?

IKER: Bai, gure aitaren baserrian egiten nuen.

TORIBIO: Orduan, ados. Har ezazu zakua, eta goazen.

LAMIA: (OFF) Ikerrek zakua lepoan hartu zuen eta Toribiorekin joan zen. / Toribioren baserrira heldu zenean, Ikerri oso baserri ikusgarria iruditu zitzaion. Txukuna eta ondo zainduta.

LAMIA: (OFF) Neka-neka eginda zegoen eta ohera joan zen, hurrengo egunean lanean hasteko.

OILARRA: Kukurruku.

LAMIA: (OFF) Anaiak bezala, oilarraren kukurrukua entzun eta berehala jaikitzen zen, lanerako prest. Lana erruz egin zuen egun askotan behiak eraisten, egurra txikitzen, garia biltzen... Horregatik, Toribiok honela esan zion egun batean:...

TORIBIO: Iker!

IKER: Zer?

TORIBIO: Ez zara zeure etxera joango?

IKER: Bai, gustura joango nintzateke.

24:06

TORIBIO: Ba, lan asko eta ondo egin duzunez gero, makila hau oparituko dizut.

IKER: Makila bat besterik ez? Esker txarreko galanta, bai horixe!

TORIBIO: Egon. Makila honi "makilakixki" esan, eta dena jotzen hasiko da.

LAMIA: (OFF) Esan eta gertatu, makila jotzen hasi zen.

IKER: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Ikerrek hura ikusi zuenean, burutazio itzela izan zuen: ostalariari lapurretan ibiltzeko gogoak kenduko zion, bai horixe! Toribiok asko maite zuen mutila, eta agur esateko orduan musu handi bat eman zion.

TORIBIO: Agur, eta ondo ibili!

IKER: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Iker, bitan pentsatu gabe, ostaturantz abiatu zen. A ze eskarmentua hartuko zuen ostalari lapur hark! Ostalariak urrutitik ikusi zuen eta zain zegoen.

IKER: Gaua hemen pasatu nahi nuke. Gordeko zenidake makila ostatuan?

PELLO: Lasai, ni arduratuko naiz.

LAMIA: (OFF)

IKER: Gauza bat, ez esan makilari "makilakixki", ados?

LAMIA: (OFF) Iker oso argia zen eta makilari indar handiz eutsi zion, ostalaria makilaren ahalmenaz ez konturatzeko.

PELLO: Lasai, ni arduratuko naiz.

LAMIA: (OFF) Mutikoa ohera joan zen. Eta ostalaria hantxe geratu zen makilari begira, haren ahalmen magikoak zein ziren asmatu nahian. "Makilakixki" esan eta makilak egundoko astinaldia eman zion. A ze ohiuak egin zituen ostalariak!

PELLO: Oi! Ez! Ez nazazu jo! Geldi, geldi zaitez! Geldi! Lagundu, laguntza! Oii!

PELLO: Geldiarazi! Gelditu, arren!

IKER: Lehendabizi, astoa eta mahaia itzuli behar dizkidazu.

PELLO: Bai, bai, oraintxe bertan, baina esaiozu makilari gelditzeko!

LAMIA: (OFF) Ostalariak den-dena itzuli zion Ikerri eta orduan, etxera abiatu zen pozarren.

IKER: Aita, Aritz, Beñat!

LAMIA: (OFF) Aita eta anaien poza Ikerrek dena zekarrela ikusi zutenean! Barre algaraka hasi ziren, oso ondo egina zuen, ostalariari eskarmentu ederra eman baitzion.

IKER: (AD LIB)

TXOMIN: (AD LIB)

BEÑAT: (AD LIB)

ARITZ: (AD LIB)

ASTOA: (AD LIB)

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K2000 S.A.

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-02-19**

LEGE GORDAILUA: : SS-556/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**